

IKASTOLA HEZKUNTZ EREDU GISA

Xabier Garagorri Yarza

G.I.E.ko Aholkulari Pedagogikoa

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslea

XI Congreso de Estudios Vascos:

«Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa. Donostia, 1991

ISBN: 84-87471-35-8

Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992. p.203-213

SARRERA

«Ikastola hezkuntz eredu gisa» izenburuaren irakurketa desberdinak egin daitezke:

- Ikastola aztergai bezala hartu eta edozein hezkuntz sistema aztertzeko baliagarriak diren aldagaiak erabiliz, ikastolaren deskripzioa egin. Horrela, ikastola hezkuntz ereduaren deskripzioa eskainiko nuke. Badaude antzeko deskripzioak egiteko ereduak (D'Hainaut, 1988), baina horrelako azterketa batean sartzea, putzu sakon eta ilunegietan sartzea litzateke.

- Nik egingo dudan izenburuaren irakurketa ez da izango aurrekoa bezain deskriptiboa. Salatuko naiz, nire ikuspegitik, zein izan den ikastolaren orain arteko ekarpena adierazten eta, batez ere, zein izan daitekeen Europako Elkartekide izateak sortzen duen egoera berri honetan. Ikastolak egin dezakeen ekarpena eta jaso dezakeen mailegua aurikusten. Putzu batetik ihes egin nahi eta bese batean sartu. Hura sakona eta iluna bazen, hau, berriz, guztiz arriskutsua.

Aurrerago joan aurretik, «Ikastola hezkuntz eredu» izatearen esanahia argitu nahi dut, horrela baieztapen honen interpretazioa zuzena egin ahal izateko:

- Ikastolak, talde bezala, eskola-eredu dira. Badituzte bata bestearekin zenbait ezaugarri amankomun, beste eskolengandik bereizten dituztenak: sorrerako arrazoiak, herri-mugimendua izatea, gestio-organoetako partizipazio sozial mota talde bezala antolatuta egotea Federazio edo Elkarte batzuen inguruan, Euskal Eskolaren etorkizunari buruzko proiektu amankomuna edukitzea, estatus juridiko berezia edukitzea, etab.

- Ikastolek ez dute eredu bukatu bat, etengabeko prozesuan egokitzen ari den eredu baina.

- Ikastola bakoitzak, beste ikastolekin batera zenbait ezaugarri amankomunak izanik ere, aldi berean, autonomi maila handia dutenez, bakoitzak bere berezitasunak ditu.

- Beti esan ohi izan da, eta arrazoi osoz gainera, esperientzia bat ezin dela hartu eta jeneralizatu besterik gabe edozein lekutara. Adibidez, Israelen, Kanadan, Galesen, Irlandan, Finlandian edo Flandesen elebitasunari buruz dituzten esperientziak jakingarriak zaizkigu; asko ikasi dezakegu, guretzat ereduak dira, baina ez kopiatzeko ereduak, kontutan hartzeko erreferentziak baizik.

Besteen esperientzia ezagutzea interesgarria da beti, baina ez besteek egin dutena errepikatzeko, zer ez den egin behar jakiteko eta ekintzaren norabide nagusiak aukeratzeko baizik. Gauza bera esan daiteke ikastolari dagokionez ere: ikastolaren esperientzia beste eskola-mota batentzat izan daiteke hezkuntz eredu edo erreferentzia. Zenbat eta antzekoagoak

izan arazoak, helburuak, hezkuntz sistemak eta hezkuntz sistemarekin interakzioan dauden beste sistemak (politikoa, sozio-kulturala, administratiboa, ekonomikoa, demografikoa...) orduan eta eredu edo erreferentzi hurbilagoak izango dira.

- Eredu bezala agertzea, beste norbatentzat ispilu zarela esatea bezala da, eta hori norbaitek harrokeriatzat har dezake, edota besteak gutxietsi egiten dituzula pentsa. Kasu honetan ez da hori nire asmoa. Agertuko ditut, bai, ikastolaren ekarpenak (ikastolak ekarpenak eta ere akatsak dituelako), baina ez dut ikastolaren apologia egin nahi. Nik nahi nukeena da, etorkizuneko Euskal Herriko eta Europako eskolaren diseinurako probetxugarriak izan daitezkeen elementuak agertuz, errelexiorako bideak irekitzea.

1. IKASTOLA ETA EUSKAL ESKOLA

Euskal Herriko eskoletan, euskarari eta euskal kulturari aspalditik eman izan zaion eta oraindik leku askotan, nahiz eta zorionez gauzak aldatzen joan, ematen ari zaion tratamendua onartezinezkoa izan da. Eskola akulturaziorako eta kolonizatorako tresna izan bait da.

Euskara biziko bazen irakaskuntza euskaraz egitea nahanahiezkoa zelako kontzientzia hartzeko eta erantzunak ematen hasteko urte asko pasa dira. Ez noa prozesu horren historia gogoratzera, baina, ildo horretan, eta parentesi modura, Kongresu honen antolatzaile den Eusko Ikaskuntzaren gorai-pamena egitea derrigorrezkoa dela derizkiot. 1918ko urtean ospatu zen Oñatin Eusko Ikaskuntzari sorrera eman zion Batzarra, Eusko Ikaskuntza hasieratik egon zen euskal irakaskuntzaz kezkatua eta talde bat aritu ere aritu zen lanean euskal irakaskuntzaren arazoa aztertzen. Geroztik etengabe jarraitu zuen bide horretatik euskal irakaskuntzaren azpiegitura sendotzen, oinarri politiko, ekonomiko eta pedagogikoak finkatzen saiatuz. Orduan egindako lanak, 1960 inguruko urteaz geroztik berriro sortzen hasi ziren ikastolentzat ezinbesteko erreferentzia izan dira.

Ikastolaren hezkuntz ereduak onarpen-maila handia du Euskal Herriko biztanlegoaren baitan. Hirurogeiko urteetan berriro indartzen hasi ziren unetik bertatik, Ikastolen mugimenduak, aurrikuspenik baikorrenak ere gaudituz, kopuru-gehi-kuntza ikusgarria izan du. Horren lekuko dira Euskal Herri oso-ari buruz ondoren agertzen ditudan zifrak:

Ikasturteak	Ikasleak guztira
1964-65	596
1969-70	8.255
1974-75	26.936
1979-80	60.529
1986-87	71.814
1990-91	70.102

Euskal Autonomi Elkartean hilru urteko ikasle berrien inskripzio-kopuruak eta portzentaia (1990-91) honako hauexek dira:

	Publikoak		Pribatuak		Ikastolak	
Araba	1.564	%65,59	490	%20,00	359	%14,93
Bizkaia	4.414	%52,51	2.078	%24,73	1.913	%22,76
Gipuzkoa	1.878	%31,96	1.568	%26,70	2.425	%41,30
E.K.A.	7.856	%47,07	4.136	%24,78	4.697	%28,14

(Eusko Jaurlaritzako Estatistika Zerbitzua)

Alabaina, hazkunderaren alderdi kuantitatiboa garrantzizkoabada ere, *Ikastolak kultur katalizadore eta dinamizatzaile* gisa bete duen eginkizuna oraindik erabakiorragoa izan dela esango nuke. Horrela, ondoren aipatuko ditudan eginkizunetan, nahiz eta batzuetan Ikastola protagonista izan, gehienetan bestegiza sektoreekin batera elkarrekin zintzan aurrera eramandako lorpenak dira.

- Ikastola eta beste eskola-sareak:

Euskal Herriko Eskola Pribatu eta Publikoari dagokionean, aitortu beharra dago Ikastolen existentzia eta praxia erabakiorra izan dela, beste hezkuntz-sareak euskaldundu eta euskal kultura transmititzeko lanabultzatzeko orduan. Ikastolek zirkulazioa funtzio garrantzitsu bat jokatu dute.

- Ikastola eta euskararen normalizazioa:

Euskararen bateratze eta normalizaziora dagokionez, euskaraz irakasteak euskararen bateratze eta modernotzea eskatu du, eta garai batean hizkuntza dialektalizatua zena, Ikastolaren kolaborazioarekin, orain kultura modernoaren transmisiorako tresna baliagarri izateko prestatua dago.

- Ikastola eta liburuaren argitalpena:

Horren parean, euskal kultur edukinen transmisio sistematikoa bultzatu du, material didaktiko propioaren beharra sortuz. Behar horien erantzuna zuzenean Ikastolatik etorri da, edota zeharkako eraginez sortzen joan diren talde eta argitaletxeen eskutik. Esandakoaren frogagarri, hortxe dauzkagu hezkuntzarako, zuzenean edo zeharka, egindako liburu-argitalpenen kopuruak:

	Haur-kopurua	Liburuak	Ikasliburuak eta haur eta gazteen literatura	
1960	+ -100	23		
1970	8.255	69		
1980	60.529	209	117	%56
1986	71.814	602	361	%60
1990	70.102	828	484	%58,50

(J.M. Torrealda, Jakin)

Oharra: 1979ko urtetik (Elebitasunaren Dekretutik) aurrera, Eskola Publiko eta Pribatuak irakaskuntzaren euskalduntze-prozesuan hasten dira eta, beraz, euskaraz irakurtzeko gai den haur-kopurua gero eta handiagoa da.

- Ikastola eta komunikabideak:

Ez dago alde batera uzterik Ikastolek euskal komunikabideetan, eta batez ere E.T.B.n, izan duteneragina. Izanez ere, Ikastolan dabilzan haurrak bait dira bezenarik leialena.

- Ikastola eta irakasle euskalduna:

Orain ez dugu elementu hau gehiegi baloratzen. Izan ere, gauregun, langabezian aurkitzen den irakasle euskalduna oso ugaria bait da, baina Euskal Herria, usadioz, ia irakasle euskaldunik gabeko herria izan da. Azpimarratzekoa da, gaur egun, hezkuntz proiektu bat aurrera eramateko hain garrantz

tziskoa den irakasle euskaldunaren eta euskaraz ikasitakoaren aukera baldin badago, Ikastolaren eraginez izan dela. Behar hori jaso eta erantzuna eman zutenen artean, berriz, batez ere aipagarriak dira Donostiako Elizbarrutiko eta Eskoriatzako Irakasle-Eskolak.

- Ikastola eta gizarte-eragina:

Hezkuntza, hizkuntza eta beste balio kultural hauez gainera, Ikastolak bultzatu ditu gizarte- eta partaidetza-mailako beste balio batzuk ere. Adibidez, alderdi politikoen gainera edo azpitik, berdin da, baina hain sakabanaturik daudenentzat desberdintasun guztien gainera, guztiak elkartzen dituen herri-proiektua izatea eta ikastolako gestio-organismoetako kideak direnean Ikastolaren interesak Alderdikoen gainera jartzen jakitea, Ikastola, partaidetza sozial hori eraginez, berak antolatzen dituen ekintzetan (Kilometroak, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, etab.etan), nahiz herri-mailan kirolearekin eta kulturarekin zerikusla duten beste zenbait ekintzetan, herri batentzat hain aberasgarria den partaidetzako kulturaren eskola izan da.

2. IKASTOLA ETA ETORKIZUNEN
EUROPAKO ESKOLA

Baina Kongresu honen gaia «Kultur antolabide berriak: Euskal Herria eta Europa» denez, eta Ikastola Euskal Eskolaren eta Euskal Herriko beste hainbat aspekturen eragile izatearen aipamena egin ondoren, sar nadin orain gaiaren muinean.

1993ko urtea, denok dakigunez, urte erabakiorra izango da Europaren historian. Urte horretatik aurrera, Europako Elkartekide garen edozein herrialdetan jar gintezke bizitzen eta lan egiten, Europako herrialde horietako biztanleek dituzten eskubide eta betebeharrak berdinekin. Eta era berean, Europako Elkartekide den edonor etor daiteke Euskal Herria gure hemendik ditugun eskubide eta betebeharrak berdinekin bizi eta lan egitera. Erabaki horrek ekar ditzakeen abantailak ukaezinezkoak dira, baina, aldi berean suposatzen duen erroka ere izugarria da. Nahiz eta, orain, mugen aldaketa horrek eraginik handiena sektore ekonomikoan izango duen, argi dago beste gizarte-sektore guztietan ere eragin zuzena izango duela, eta, jakina, baita hezkuntz sisteman ere.

Zein da Ikastolak egin dezakeen ekarpena eta jaso dezakeen maila egoera berri honetan? Zertan izan daiteke Ikastola besteentzat hezkuntz eredu?

Galdera honen erantzuna bi ikuspegitatik aztertuko dut:

- Ikuspegi kurrikularretik
- Eskolaren gestio eta antolamenduaren ikuspegitik.

2.1. Ikuspegi kurrikularra

Etorkizuneko Europako eskolek, ikastolak barne noski, jakin beharko dute beren kurrikulumak egoera berri horretara egokitu eta moldatzen, baldin eta ikasleek eta gizartearen beharrei erantzun nahi badie bederen. Eta kurrikulum horretan bi erreferentzia desberdinen arteko oreka lortu beharko da: alde batetik, Europa mailako erreferentzia zabalaren eta, bestetik, lekuan lekuko eskola bakoitza kokatuta dagoen herrialdearen erreferentziaren arteko oreka alegia.

Europako ikuspegi zabalean
zentratutako kurrikulum

Europako ikuspegi zabalean, ondo prestatuak egon beharko dugu beste herrialdeekin harreman pertsonal, sozial eta profesional irekiak edukitzeko. Horretarako, kultur

aniztasuna eta eleaniztasuna bultzatuko dituzten kurrikulumak beharko ditugu. Baina, era berean, eta indar berdinarekin gutxienez, herrialde bakoitzaren hizkuntza eta kultura propioak sakonduko dituen kurrikuluma beharko dugu.

Une hauetan, gai hauei buruzko literatura irakurtzen denean, Europa mailan zentratutako kurrikulumari ematen zaio lehentasuna, herrialde mailakoa etorkizuna oztopatzen duen ikuspegia bailitzan:

«Los sistemas escolares siguen inmersos en presupuestos nacionalistas de fondo que obstaculizan considerablemente su evolución hacia modelos de formación más abiertos. Para poner un par de ejemplos que ayuden rápidamente a comprender la situación, basta pensar en lo que ocurre, en las escuelas, con la enseñanza de la historia o con las enseñanzas de las lenguas extranjeras. Piénsese igualmente en la formación cívica, estética, ética, religiosa. Incluso en los enfoques, a menudo de corto alcance, existentes en el ámbito de la formación laboral o profesional».

García Garrido, J.L eta beste (1989): «La educación en Europa: Reformas y perspectivas de futuro». Edit Cincel, Madrid, 9-10 orr.)

Euskal Herrian zentratutako kurrikuluma

Orain arte esandakoa egia dela aitortuz, eta beharrezko oreka bati eusteko asmoarekin, komeni da Europa mailan gehiegi zentratutako kurrikulumak dituen arriskuak ere azpimarratzea. Euskal Herrian, euskal irakaskuntzarekin gertatu dena ezagututa, badugu horretan esperientzia eta eskarmen-tua. Orain dela gutxi arte, Espainiako edo eta Frantziako hizkuntza eta kultura zabalagoen izenean, gurea desagertzeko bidean baldin bazegoen, ez dakigula gerta orain, Europaren izenean, gauza bera.

Puntu honi buruz Ikastolek badute beren eritzi propioa. Euskal Eskolari buruz, ikuspegi hau onartu zen Iruñean 1990eko martxoan egindako Kongresuan:

«Asumitzen dugu komunitate internazional bateko, eta zehazki komunitate europarreko hiritarren izantza. Errealitatearen printzipioaren aurka doan itsukeria bat izango litzateke, bestela, munduko nazio guztiak destino komun batean aurrekin gabe konprometitzen dituen nazioarteko koiunturari ezikusia eta entzungor egitea. Onerako nahiz txarrerako, denok gaude inplikaturik bidaia berean, hots, berdintasun handiago bat lortu nahian, zientzia eta teknologiaren garapenean, hondamen nuklearraren arriskuan, desoreka ekologikoetan, baliabide naturalen gutxipenean, ordena ekonomiko eta sozial berri baten bilaketan, gazteen langabezia, mundu mailako komunikazio eta informazio sistemak, balore zaharren aldaketan eta berrien aurreko zalan-tza-balantzan, etab. Hala ere, koiuntura unibertsal horrek ez digu begi-bistatik galduezei behar hizkuntz sistema ororen funtsezko helburu bat, haurren nortasuna eta nortasun horren osagaiak errespetatu eta potentziatzean oinarritu behar duela alegia. Eta horien artean gure herriaren osagai kulturalak eta hizkuntzazko adierazpena, hezkuntz politika koherente ororen oinarri izan beharko lukete. Horrela bada, gizabanakoaren nahiz herrien arteko desberdintasunean eta diferentzietan benetako komunitate baten oinarria eta beti aberasteko eta aurrera egiteko funtsezko iturria ikusten duen jarrera hau gabe, nekez ihes egingo zaio gizarte uniformetu eta alienatu bati». (46. orr.)

«Pertsonak eta herria bere identitate propioarekin janzen baditugu, orduan bai Estatuko beste herriei, Europarekin eta mundu osoarekin positiboki erlazioan ahal izango garelako». (38. orr.)

Ikuspegi zentripetoaren eta zentrifugoaren arteko tentsioa eta oreka

Kurrikulumari dagokion jarrera hau, tentsioan eta orekan mantendu nahi ditugun bi mugimendutan gauzatzen da, mugimendu zentripetoan, alde batetik, Euskal Herriaren beraren baitako errealitate propioan zentratuz, eta mugimendu zentrifugoa, bestetik, Euskal Herriak kanpora dagoen errealitatera irekiz.

Mugimendu zentripetoaren adierazle dira Euskal Eskolaren helburu linguistikoak eta Oinarriko Diseinu Kurrikular espezifikoa sortzeko ahaleginak:

«Jatorrizko euskaldunek nahiz erdaldunek lor dezatela euskaren ezagupena, ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta irakurtzeko zaletasun-ahalmenak garatuz, horrela, Lehen Mailako Irakaskuntza bukatzean (12 urterekin) prestatuta egon daitezten ondorengo ikasketak euskaraz egiteko eta, halaber, bizitzako testuinguru guztietan eta beren adinari dagozkion funtzio eta erregistro linguistiko guztietan euskara erabili ahal izateko». (27 orr.)

«Euskal Eskolaren Oinarriko Disenue espezifikoa berezia erabakitze eta horrek ere obligaziozotasuna izan dezan, osa dadila talde pluridisziplinari bat, proposamen hau aurrera eramateko eginkizunarekin, erreferentzia bezala euskal gizartea eta honen arazoak, beharrak, ezaugarriak eta gizartean eraturiko kultura hartuz» (40. orr.)

Mugimendu zentrifugoaren adierazlea baino ez da kultur eta hizkuntz aniztasunari buruz daukagun jarrera. Beste herrialdeetako kultur adierazpenak eta hizkuntza desberdinak ezagutzea aberasgarria da, ezpairik gabe, baina aberasgarria da, baita, gure hizkuntza eta kultura beste herrialdeei ezagutzera ematea ere. Gurea bezalako hizkuntza eta kultura minorizatu bat ezin liteke «Numancia» bailitzan amasa usteldu arte bere baitan itxi, baina ezta ere gure ateak zabaldu eta inuxentearena egin irentsiak izateko. Beste kultura eta hizkuntzak behar ditugu, bai, baina gurean txertatzeko, hau da, horien odolarekin gurea sendotu eta eraberritzeko alegia

«Euskal Eskolaren lehentasunezko helburu linguistikoa euskara izanik, baina aldi berean harreman pertsonal, sozial eta profesionalak Euskal Herriko mugak gero eta gehiago gainditzen dituen Europako Elkartearen esparru barruan izango ditugula kontutan hartuz, Europako beste hizkuntzen ezagutzak eta erabilpenak ere Euskal Eskolaren helburu linguistiko izan behar dute». (28 orr.)

«Bizimodu desberdinei dagokienez, hau da, balore eta ohitura plurikulturei dagokienez, modu positibo batean hartu behar ditugu, garapen pertsonal eta kolektiboko mugak zabaltzen dizkiguten neurrian. Beharrezkoa da, aldi berean, gure kultura propioa jaso eta geureganatzea, elkarren arteko interakzio aberasgarria posible izan dadin.. Osterantzean, elkar ukituz dauden hizkuntzekin gertatzen dena gertatuko da gure kulturarekin ere, hau da, ospe sozial altuko hizkuntzen bitartez eta komunikabideen presentzia handiaren bitartez zabaltzen den kultura dominatzaileak gure kultura propioa baztertu eta jan egingo duela alegia». (38-39. orr.)

«Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntzen artean, handikienazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia. Beste nonbait esan eta idatz dudana bezala, diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitezela ghettoaren infernua erori. Hizkuntz integrakuntza beste ezein beharrezkoa dugu».

(Mitxelena, K. (1968). Euskararen liburu zuria». Euskaltzaindia, Hitzaurrea)

Ikastolaren aukera paregabea

Kurrikulumaren inguruan, ikastolak eta ikastolen antzera helburu linguistikoak eta kulturalak argi dauzkaten eta baliabideak dituzten beste sareetako eskolak, egoera onean daude jarrera zentripetoaren eta zentrifugoaren arteko sintesi aberasgarria egiteko. Beste eskoletatik, berriz, Europaren izenean eta hizkuntz eta kultur aniztasunaren aitzakian, euskarari eta euskal kulturari eraso berri bat etor dakioko. Horrexegatik, hain zuen, garrantzi handia du gure kurrikulumak inolako konplexurik gabe egoera berri horietara egokitzen hasteak eta planteamendu asimilazionistak egingo dituzten eskolei aurrera hartzeak.

Ikastolak, hizkuntzak eta kulturak harremanetan jartzen hasiak gara. Harreman horietan, esan bezala, lehentasunezko erreferentzia eta helburua, gurea indartzea da:

- Ikastolak euskara berreskuratzeko egin duen lana eza-guna da. Eta ezagunak dira, baita ere, euskal kulturaren adierazpen nagusiak ikastolaren eraginez jaso eta indartzeko egin diren ahaleginak: testuliburuak eta ikasmateriala, «Bertsolaritza irakaskuntzan proiektua, «Ikaspilota» proiektua, Kilometroak, etab.

- Era berean, ingelesez ikasteko eta bizitzeko udalekuak eskaintzen ditugun bezala, hirugarren hizkuntzaren ikasketa goiztiarra ere bideratzen hasiak gara, lau urtetatik ekinez. Azken berrikuntza honek uste baino aldaketa handiagoak ekarriko ditu, izan ere proposatzen dena ez baita ingelesa edo frantsesa garaiz ikasten bastea, ingelesez edo frantzez ikastea baizik (murgilpen partziala).

2.2. Eskolaren gestio eta antolaketaren ikuspegia

Etorkizuneko Europako eskola horren zutabe bat kurrikulumiari buruzko erabakiek osatzen baldin badute, beste zutabea, eskolari buruzko gestio eta antolamendu-mailako erabakiek osatzen dute.

Hezkuntz sistemaren eta eskolaren gestio eta antolamenduari dagokionez, hiru maila bereizi izan ohi dira (T. Parsons (1966), L. D'Hainaut (1988)):

- Maila tekniko-pedagogikoa: Eskola bakoitzak bere eginkizunak betetzeko dituen konpetentziak.

- Maila administratiboa: Hezkuntz sistemaren gestioa garantizatzen zerbitzuek dituzten konpetentziak.

- Maila politikoa: Hezkuntz sistemaren norabide orokorrak (xedeak, helburuak, edukinak) eta norabide horiek lortzeko baliabide gizatar, material eta ekonomikoak erabakitzeko dituzten konpetentziak.

Hezkuntz sistema eta eskola-eredua hiru maila horien arteko hierarkizazioak eta funtzioen banaketak definitzen dituzte. Eta eredu horren konfigurazioa honako galderoi ematen dizkiegun erantzunen pentsutan egongo da:

- Zein da maila politikoa eta Administrazioak berentzat gordetzen dituzten konpetentziak, eta zein da eskolaren konpetentzi maila?

- Zein da eskola bakoitzaren barnean hezkuntz komunitatearen osagai desberdinen partaidetza- eta konpetentzi mila?

Arazo honi modu diferentetan heldu zaio hezkuntz sistema nazional desberdinetan. Egia da ez dagoela formula bakarra eta unibertsala eskolaren autonomia maila eta arau-kontrol mailen arteko oreka egiteko. Nik hemen, Ikastolaren esperientzia azalduko dut, eta horti buruzko gogoetatxo bat egingo.

Europako hezkuntza sistemak

Europako hezkuntz erakundeek, irakasmaita guztietan, historia luzea dute, baina eskolak Estatu mailako hezkuntz egitura organiko bezala egituratzearen historia nahiko berria da. XVIII, mendean aurrera ondo sartu arte, eskolek ez dute elkarren artean loturak ezartzeko planeamendurik. Eta XIX, mendearen hasieran, Frantziako eta Dinamarkako Estatuak eskolasare finkoak zabaltzen eta koordinatzen hasten diren lehenak dira, Espainian XIX. mendearen erdialdera eman zioten planteamendu honi legezko itxura (Moyano Legea).

Eskola nazionalaren sorrera eragiten duen planteamendua, haur guztiek oinarritzko hezkuntza bat derrigorrez hartu behar dutelako eta instrukzio horren ardura Estatuko aginteari dagokiolako ideian oinarritzen da.

XIX, mendearen bukaeran, Hezkuntz Zerbitzu Zentralak edo Ministraritzak sortzen hasten dira, batez ere Frantziako zentralismo politikoa eredutzat hartzen duten herrialdeetan. Beste herrialde batzuetan beranduago sortzen dituzte: Ingalaterran, 1944. urtean eta Alemanian, nazismoaren garaian eta beranduago, 1969ko urteaz geroztik, beti konpetentzia oso mugatuekin.

Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren (1944), Bigarren Mailako irakaskuntzaren hedapenari lehentasuna ematen zaio eta, horren ondorioz, herrialde gehienetan Ikasketa-Plangintza bateratuak ezartzen dira derrigorrezko irakaskuntzaren epealdirako.

Europako Elkartekideen artean, herrialde batzuek, eta batez ere hegoaldekoek, Hezkuntz Sistemaren estrukturalazio politiko-administratibo zentralizatu (eredu frantsesa) eta Ikasketa-Plangintza bateratua hartzen dituzte hezkuntz gobernaren eta administrazio-sistemaren eredu gisa. Beste batzuek, berriz, eta batez ere iparraldekoek (herrialde anglo-saxoiarrek), estrukturalazio deszentralizatuagoren eredu hartzen dute, eta eskola bakoitzaren erabakipean uzten Ikasketa-Plangintzaren definizioa. (Ikus, «Europako Eskola Publikoen baitako autonomia eta kontrola» Symposioma 1987ko apirila, Euskal Herriko Ikastolen Elkartea).

Ikastolaren sorrera eta egituratze-prozesua

Ikastolak, Espainiako eta Frantziako Estatuaren barnean, hau da, Hezkuntz Sistema zentralizatuak kulturaren bihotz-bihotzean kokatuak daude. Eta hortik sortuko diren eskolak, eskola estatalak izango dira, Estatu horien Hezkuntz Sistema eta interesak eta ideologia transmititzeko tresna bat alegia. Eskola pribatuari dagokionez, berriz, hauen jabegoa Estatuarena izan ordez, entitate pribatu batena, gehienetan talde erlijioso batena izango da. Eta eskola hauetan ere, jabegoa duenaren interesak eta ideologia transmitituko dira. Eta horrela, bai eskola estatalek eta bai pribatuak, Euskal Herriaren ezaugarri nagusienak zapaltzen zituzten, benetako akulturazio-tresna bilakatuz.

Ikastolak, orduko eskola estatalaren eta pribatuaren alternatiba eta herri-mugimendu bezala sortzen dira. Beste eskoletan alternatiba eta herri-mugimendu izatea, sorrerako bi ezaugarri hauek erabakiorrak izango dira Ikastolaren gestio eta antolamenduko eredu definitzeko orduan. Ikastolak ez dira haien eskemetan sartzen, atipikoak dira haien zat, Estatuaren esperientziak administrazio indartsuetara, funtzionarien eta burokraziaren kulturara darama eta giro horretan sortzen diren eskolak ezaugarri horiek dituzte. Euskal Herriak, Estatu propinarek esperientziarik gabeko herri izatea bere kalterako zuen, noski, baina izan behar zuen zerbaitetan bere onerako ere, eta Euskal Herriko kulturaren herri eta auzo mailan (auzolanean) ohizkoak diren erabakiak hartzeko partizipazio sozialeko tradizioan oinarritzen da bere gestioa eta antolamendua eratzeke.

Gestio-mota hau bizia da, estruktura arinekoa, dinamikoa, malgua. Ikastolaren proiektuan parte hartzen dutenen arteko (guraso, irakasle, laguntzaile, etab.en arteko) funtzio-banaketa operatiboa baino areago, denek batera atxekimenduz egiten duteneko mugimenduen itxura du. Antolamendu hori, alde batetik, aberatsa da, guztiak partaide eta arduradun bait dira helburu amankomunen inguruan sortzen den talde-dinamikan, bestetik, antolamendu-mota hau oso ahula da eztabaidak sortzen direnean.

Ikastolak, neurririk gabeko autonomiatik, autonomi maila neurturantz

Garai bakoitzak ditu bere ezaugarriak, aldagai askoren, (ekonomiko, politiko, sozio-kulturak, demografiko, etab.en)

eraginez etengabe eraberritzen doazenak. Hezkuntz sistemak, garaian garaiko ezaugarrietara egokitzen eta sortzen diren beharrei eta itxaropenei erantzuten saiatu behar du. Era honetan esan ohi da eskola bat kalitatezkoa dela, espektatiben eta beharrian sozial eta indibidualen artean eta eskolak ematen duen erantzunaren artean oreka bat dagoenean. Ikastolak ere, garaien ezaugarri horien arabera, denborarekin handituz joan diren neurrian eta beren arteko harremanak gorpuzteko beharra sentitu duten neurrian, antolatze modua ere egokitzen jakin dute.

Ikastolen kalitate bat, hain zuzen, helburuak argi mantenduz, garai bakoitzak eskatzen duen antolaketa-erak malgutasunez egokitzen jakitea izan da. Hasierako gestiokeran ia neurririk gabeko autonomia edukizetik (ez dakit egoera horri autonomia hitza ala bakardadea hobeto datorkion), pixkanaka-pixkanaka arau amankomun batzuen premia sentitzera iritsi dira. Ikastolak gorpuzteko premia horien eragileetako batzuk barritut datoz eta beste batzuk kanpotik:

- Ikastolen hazkundeak sortzen zituen arazoak eta proiektua bideratzeko aurkitzen ziren oztopoak (lokalak, irakasleak, finantzabideak, eragozpen juridikoak, etab.), ezin zirenez arazo horiek guztiak ikastola bakoitzak bere aldetik bakarka jokatuz konpondu, taldearen premia, babesa eta indarraren beharra dakartzate. Taldean egotea laguntza handikoa da, segurtasuna eta babesa ematen du, baina taldean erabakiak hartzen diren neurrian, erabaki honek bakarka hartzeko ahalmena galtzen da. Ikastolek Federazioak edo Elkarteak sortzen dituzte eta Batzar Nagusietan hartzen diren erabakiak ikastola guztiek bete beharrekoak dira. Horrela, ikastolek, beren gogoz eta sortzen diren premien arabera, ikastola bakoitzaren autonomia mugatzen duen arautegi bat jartzen dute indarrean.

- Bestetik, 1980ko urteaz geroztik, hau da, «Ikastolaren Titulartasun Ofizialeko Arautegiaz» geroztik, oraindik amaitu gabe dagoen «normalizazio» prozesuan, zenbait hitzarmen egin ditugu Euskal Administrazioarekin. Eta hitzarmen horietan, beste edozein hitzarmenetan gertatzen den bezala, zerbait jasotzen da eta zerbait uzten. Ikastolak, segurtasun ekonomiko eta juridikoaren truke, zenbait arau betetzera derrigortu gaituzte eta gara (derrigorrezkoak izateak ez du esan nahi arau horiek derrigorrez txarrak direnik): irakasle berriak gaitasun-proba bat pasa ondoren aukeratu ahal izatea; titulurik gabeko irakasleek titulua atera behar izatea; ikastolek baldintza fisiko gutxienezko batzuk bete behar izatea, irakaskuntza emateko autorizazioa jaso ahal izateko; ikasleen matrikulazio-arauak errespetatu behar izatea; gela irakasleen arteko ratioko arauak errespetatzea; Gobernu-organoetako partaidetzako arauak; kontrol ekonomikoaren sistema; Administrazioaren programa eta plan pedagogikoak, etab.

- Arautze-prozesu honetan ez dira ahaztu behar Lan-Hitzarmenak. Hasiera batean, irakasle gehienek kontraturik ez zuten eta ez zen planteatu ere egiten Ikastolaren jabegotza eta irakasle-langileen arteko bereizketaren beharrik. Ondoren, ikastola bakoitzean egiten hasten dira Lan-Hitzarmenak, baina formula horrek ere bazituen bere akatsak; izan ere guraso eta irakasleen artean sortzen ziren eztabaidak ez bait ziren batere mesedegarriak Ikastolaren eguneroko funtzionamendurako. Gaur egun, Ikastolen Elkarteek jaso dute Ikastolen delegazioa Lan-Hitzarmenak egiteko eta urtero egiten den Ikastolen hitzarmen kolektibo horretan, zenbait erabaki hartzen dira Sindikatuekin batera, arau bihurtzen direnak. Lan-Hitzarmen horien eraginez, irakasle goaren egoera laboralak, eta orokorrean irakasle-funtzioaren aniztasuna (soldatak, lanorduak, baldintza sozialak, erreziklajea eta formazio-sistemak, etab.), berdintzen

ari dira, Ikastoletako irakasleen Estatutu baten oinarri izaterai -no.

Ikastolak, prozesu honetan, bi antolaketa- eta gestio-kulturaren artean tirabiran egon gara eta gaude: alde batetik kultura zentralizatuaren (eredu napoleonikoaren) eta bestetik bertako partizipazio sozialean oinarritutako kulturaren artean alegia. Euskal Herriko Administrazioan, gure gustorako ala disgustorako, indartsuagoa gertatu da kultura zentralizatuaren eskema, bertako partizipaziozko kulturarena baino. LOECE, LODE eta LOGSE bezalako legeak hartu ditu Euskal Administrazioak Ikastolekin Hitzarmenak egin dituen erreferentzi marko bezala. Kasu honetan, T. Parsons eta L. D'Hainaut-en terminologia erabiliz, Estatu-mailako erabaki politikoek itxuratu dituzte maila administratiboa eta pedagogiko-teknikoa.

Ikastoletan ikasi dugu ezin dela neurririk gabeko autonomia batean bizi; gizartean bizitzeak arau batzuk dakartzala; eta, batzuetan gogoz eta beste batzutan behartuta, baina protagonismo inoiz ere galdu gabe, Ikastola arautzen joan gara. Baina, aldi berean, eta gero eta konbentzimendu handiagorekin ikusten dugu, etorkizuneko Europako eskola eraikitze ez da zentralizazioaren tradizioan oinarrituta behar, eskolaren autonomian baino.

Autonomian zentratutako eskola-eredua,
Europako etorkizuneko eskola-eredua

Autonomian zentratutako hezkuntz sistema eta eskola-ereduaren tradizioa edo kultura hori bada, baita, Europako tradizioa ere. Eta eskola publikoaren tradizioa ere bai, gainera; eta ez bakarrik eskola pribatuarena, askok uste duten bezala. Ikastolen Elkarteak «Europako Eskola Publikoaren baitako autonomia eta kontrola» gaiari buruz, 1987ko apirilaren Symposium bat antolatu zuen eta han egiaztatu ahal izan zen bezala, eskola publiko kontzeptuak esa nahi desberdina du tradizio anglosaxoniarrereko herrietan eta eragin napoleondarrekoetan. Azken hauetan nahastu egiten dira publikoa eta estatuala, eta eskola bakar eta uniforman gauzatzen Estatuaren irudi eta antzera, Estatuaren monopoliozko eskolan alegia. Tradizio anglosaxoniarrereko herrietan, publikoaren kontzeptua hurbilago dago sozial-publikotik, publiko-politikotik baino, eta hori eskolaren egitura dibertsifikatuen isladatzen da, kokatzen diren errealitate sozial eta geografikotik hurbilago aurkitzen direlako.

Ikastoletako eskola-esperientzia askoz ere gertuago dago sozial-publiko kontzeptutik. Iruditzen zaigu, eskola zenbat eta denonagoa izan, hau da, zenbat eta herrikoiaago izan eta partaidetza handiagoa izan gizarte zibilean, orduan eta hobetoago mamituko dela publikoaren kontzeptua.

Autonomian zentratutako eskola-ereduak gero eta jarraitzaile gehiago ditu gai hauetaz pentsatzen eta idazten duten komunitate zientifikoko idazleen artean. Adibide gisa, G. Lapassade-k, ikastolak ezagutu ondoren prentsan egin zituen deklarazioen zati bat jasoko dut:

«Hezkuntzako maila eta sail guztietan eman beharko lieke burujabetza, autonomia eta autogestiorako aginpidea Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntzan ahalbideak dituen Eusko Jaurlaritza bat izatea bakarrik ez da aski, gizarteko oinarriko gune bakoitzak izan behar du bere buruaren jabe. Gizartean ezin da aldakuntza sakonik egin, eguneroko bizitza aldatzen ez bada. Aginte politikoaren antolamendua bakarrik aldatuz burrokratizazioa, adorea galtzera eta irteerarik gabeko zulora berehalaxe heltzen da. Alderdiei eta Sindikatuei ezin zaie buruan sartu erakunde bakoitzaren barruan, erakunde bakoitzaren demokratizazioan eta autogestioan egin behar dutela lan».

(Deia, 1988ko otsailak 25)

Hezkuntz sistema zentralizatuak krisian daude. Aztertu besterik ez dago sistema horren prototipo diren eta gure inguruan ditugun sistema espainola eta frantsesa.

Espainiako hezkuntz sisteman aldaketa sakona eman nahi da LOGSE legearen inguruan Konturatu dira ez dagoela heziketaren kalitatea hobetzerik eskola bakoitzaren protagonismo, erabakiak hartzeko ahalmena edo autonomia eta aurreko ahalmen horien ondorioa den ardura ez badira indartzen. Orduan, hemendik aurrera, eskola bakoitzaren eginkizuna izango da bere Hezkuntz Proiektua, Proiektu kurrikularra eta Unitate Didaktikoak eraikitzea, beti ere Administrazioak ezarriko duen Oinarritzko Diseinu Kurrikularra errespetatuz. Hala ere, berrikuntza hau erdibidean geratzen da: Kurrikulume-ko erabakiak, neurri handi batean, eskola bakoitzaren ardurapean jartzen dira, baina gestio-antolaketako erabaki nagusiak (irakaslearen kontratazioa, finantzatzeko modus, eskolaren gobernu-egitura, etab.) hartzeko orduan, eskolak ahalmenik ez du. Hau da, autonomian zentralizatuko eredu kurrikularra bultzatu nahi dute, alde batetik, baina gestio- eta antolamendu-eredu zentralizatuari eutsi nahi diote, bestetik. Kontradikzio hori ez bada hausten, alegia, kurrikulum-a eraikitzeko eskolak behar dituen baliabide gizatar eta ekonomiko koherenteak ezin baldin baditu eskuratu, alferrikako berrikuntza izango litzateke.

Frantziako hezkuntz sistema ere aldatu nahian dabilta, Konturatu dira hezkuntz sistema gehiegi burokratizatzeak kalteak ekartzen dituela: boterea gutxi batzuen eskuetan kontzentratzea, bere baitan itxia eta boterea metatzera jotzen duen funtzionalgo bat eratzea, luzamendu handiko operazio mantsoak, esfortzuen bikoizketa, ganoragabekeria, legalismo formalezko jarrerak, berrikuntzarako erresistentzia,... Horrela, hezkuntz sistema, bere inertziak, gizarteko beste sektoreen interesetatik gero eta gehiago aldentuz joaten den eta bide paraleloan funtzionatzen duen aparatua izatera iristen da, azken buruan. Administrazio zentralizatu hauek, beren arazoez jakitun, beren zerbitzuak «deszentralizatu» konpondu nahi dituzte, delegazio, azpidelegazio eta alboko zerbitzuak sortuz. Baina erremedio horrekin, Administrazioaren makinaria eraginkorragoa egin beharrean, oraindik astunago bihurtzen dute, zeren eta deszentralizazioaren izenean sortu dituzten aparatu berri horiek koordinatzeko, lehen baino arategi konplexuagoa eta parafernalia administrativo handiagoa behar baita. Horrela bada, burokraziaren arazoak konpontzeko, oraindik burokrazia gehiago suposatzen duten politikak ezartzen dira. Hezkuntz sistema zentralizatuak ez baldin badute pentsatzeko modu hori errotik aldatzen, hau da, eskola administrazioaren luzapen bat delako burutapena abandonatu eta administrazioa eskola bakoitzaren lan-planen zerbitzura jartzen, zaila izango da burokraziaren gaitzak zuzentzea.

Europako etorkizuneko Eskolak gutxienezko arau amankomun batzuk beharko ditu, batez ere Oinarritzko Kurrikuluma eta Ebaluazioko sistema konparagarria segurtatuko duena, baina minino horretatik aurrera, kurrikuluma osatzeko eta hori bideratzeko eskolaren gestioak eta antolamendu-ereduak oso malguak izan beharko lukete. Alde batetik, Europako errealitatea oso plurala delako: herri ugari, hizkuntza ugari, kultura ugari, ...Eta bestetik, gaur egungo gizarteak aho batez arrezagutzen zaion ezaugarrietako bat aldaketa bizkorrekoa izatearena delako, bai baldintza material eta harreman sozialetan eta baita balorezko ezaugarrietan ere. Horrelako eszenategi batean, bada, inork ere pentsaezinezkoa da eskola arauzale, burokratizatu bat, hots, Estatuaren uniformetasun zentralizatuko pentsamoldearen fruitu izango den eskola bat.

3. IKASTOLAK PROPOSATZEN DUEN ESKOLA PUBLIKOAREN EREDUA

Gauza bat da etorkizuneko eskola horrek, autonomian zentralatua, hots, autogestionatzeko ahalmen zabalekoa izan behar duela esatea eta horretan ados egotea, eta beste bat autonomian zentralizatuko eskola horren eredua definitzea eta eredu horretan ados egotea. Ikastolek duten hezkuntz ereduaren filosofia eta praktika ere, funtsean ondo josten direla esango nuke bizi garen gizarte aldakor honen baldintzetara eta baita ere, nire eritziz, aurrakusten dudan etorkizuneko Europako eskola-eredura. Hala ere, Euskal Herrian, eta batez ere Komunitate Autonomoan, gaur egungo eskualdaturiko Eskola Publikoaren eta Ikastolen artean batasun prozesuaren fruitu izango den Euskal Eskola Publikoaren ereduaren hila gabiltzanek, gogoeta eta eztabaida sakonak izan ondoren, «Euskal eskola» izeneko dokumentua onetsi zen Iruñeko 1990eko martxoaren 24eko Kongresuan.

Autonomian zentralizatuko eredu zentralistaren alternatiba eta etorkizunerako Eskola Publiko berri honen garrantzizko ezaugarri bat malgua eta plurala izatea bada, ez luke zentzu handiegirik eredu itxi bat aurkezteak, Malgutasunaren printzipioari eutsiz, ordea, izan daiteke interesgarria autonomian zentralizatuko eredu desberdinak aztertzea. Hori da nire asmoa, autonomian zentralizatuko eredu baten, itzulpen baten, aurkezpena egitea.

3.1. Hezkuntz komunitatearen (gizartearen) eta administrazioaren arteko autonomia konpartitua

Ikastoletatik proposatzen den Eskola Publikoaren eredua ulertu ahal izateko ezinbestekoa da Ikastolek, alde batetik, eskolaren autonomia eta, bestetik, arauzko kontrola nola ikusten dituzten eta bi elementu horien arteko oreka nola ulertzen duten jakitea.

Aurreko kapitulua irakurri ondoren, erraz suma daiteke Ikastolek zergatik hartzen duten autonomiaren Ikurra Eskola Publikoaren oinarri gisa. Baita ere argi geratu da nola Administrazioaren papera autonomian zentralitzen den eskola-eredu batean ulertzen dugun. Administrazioa eskola bakoitzaren lan-planen zerbitzura jarrita, alegia, eta ez orain arte bezala eskola Administrazioaren plangintzen luzapen gisa.

Baina argi geratu da baita ere, saio honetan bertan, Ikastolaren autonomiari buruzko esperientzia adierazi dudanean, eskola baten autonomia eta autogestioa ezin daitezkeela mugagabeak izan. Eskola-sistemaren bolumena eta bere konplexutasuna gero eta handiagoak dira (eta zer esanik ez Europako esparrua hartzen bada erreferentzia gisa), eta horregatik ezinbestekoa gertatzen da hezkuntzaren antolamenduari buruzko erabakiak, norabide orokorrak, xedeak, helburuak, eta baliabide ekonomikoak maila politikoan hartzea. Era berean, hezkuntz sistemaren gestioa garantizatzeko, diskriminazioan aurka egiteko eta markatu diren helburuen ebaluazioa egiteko, Administrazioaren koordinazioa eta partaidetza derrigorrezkoa gertatzen da.

Eskola Publikoaren eredua definitzerakoan, maila politiko-administratiboaren eta eskolaren maila tekniko-pedagogikoaren artean bata bestearekiko menpekotasunik gabeko bi elementuen arteko oreka eman behar du. Eskola ez da Administrazioarena (Estatu, Gobernu Autonomo, Diputazio edo Udaltearena), baina ezta ere hezkuntz komunitatearena (guraso, irakasle eta ikasleena), batarena eta bestearena baizik, eta maila berdinean gainera biena, nahiz eta funtzio desberdinetan eman jabetza hori. Ikusmolde honen arabera, eskolaren barruan hartzen diren erabakiak era konpartituan egingo dira,

hau da, Administrazioak eta Hezkuntz Komunitateak autonomia eta erabakitze maila konpartituak izango dituzte. Horrela bakarrik pasa ahal izango da Eskola Publikoa Estatuaren monopolio bezala ikusten duen ikusmoldetik, denona eta erabiltzaile guztientzako baliagarri bezala ikusiko lukeen Eskola Publiko-sozialaren kontzepzioa.

3.2. Ikastolek proposatzen duten eskola publikoaren diseinua

Ondoren, Iruñeko Kongresuan ikastolek onartu genuen eskola-ereduaren ezaugarri nagusiak agertuko ditut labur-labur. Ikastolen proposamena sakonago aztertu nahi duenak, lehen aipaturiko «Euskal Eskola» liburura jo besterik ez du.

Eskola-eredu baten diseinua egin nahi denean badaude funtsezko elementu batzuk:

- Ikastetxearen izaera.
- Bere adierazpen pedagogikoa: hezkuntz proiektua
- Eskolaren titularitatea edo jabetza-mota
- Gobernu eta funtzionamenduko egitura
- Adierazpen laborala, edo ikastetxeko pertsonalaren baldintza juridiko laboralak: lan-harremanak.
- Adierazpen ekonomiko-finantzarioa.

Lehenengo bi puntuen aurkezpena eginda dago «Ikuspegi kurrikularra» deituriko atalean. Ondoren, gainerantzeko elementuen aurkezpen laburra egingo dut, horrela Ikastolek Eskola Publikoari buruz duten ikuspegia agertzeko.

Titularitate konpartitua

Hezkuntzaren munduan, ikastetxe baten titularitateaz hitz egiten dugunean, ikastetxe horren sustatzaile den eta, beraz, berorren arduradun eta jeneralean jabe den pertsona fisiko, juridiko eta instituzionala adierazi nahi dugu. Titularrak, sustapen horren arabera, ikastetxearen nortasuna definitzen duen izaera propioa definitzen du. Eta sorrerako izaera hori denboran zehar garantizatze, titularrak, ikastetxearen erabaki eta zuzendaritzako organoetan parte hartzen du eta beroriek kontrolatzen ditu.

Titularitatearen ikuspegi global hau zehartu daiteke gehiago Titularitate-mota desberdinak bereiziz. Hala:

- Titularitate Akademikoa: Irakaskuntz malla jakin bat emateko eskubidearen errekonozimendu eta erregistroan dagokiona.
- Ondare-Titularitatea: Eskolako edifizio eta instalazioen jabetzari dagokiona
- Titularitate Laborala: Laneko kontratuen arduradun den arrazoi sozialari dagokiona.
- Estatutu-Titularitatea: Barneko gestioa egituratzeko ahalmenari dagokiona, organoak eta hauen konpetentziak seinatuz.

Euskal Herrian ezagutzen dugun Eskola Publikoaren eredu, Titularitate-mota guzti horien jabetza Espainiako Estatu-tako Gobernaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskuetan dago, Administrazio desberdinen eskuetan alegia. Eskola Pribatuaren eredu, berriz, Titularitate Akademikoa izan ezik, beste guztiak Administrazioa ez den pertsona fisiko, juridiko edo instituzional baten eskuetan daude.

Ikastolek planteatzen duten Eskola Publikoaren eredu, titularitatea ez da Administrazio Publikoaren eskuetan uzten, baizik eta Administrazio Publikoaren eta hezkuntzan inplika-

tuak dauden giza sektoreen arteko Titularitate konpartitua proposatzen da.

Formula berri honen bideragarritasuna, gaurko marko juridikoan zein izan daitekeen ikusteko, egin dute txosten juridiko bat horretarako dauden legezinez.

Gobernu eta funtzionamenduko egitura

Eskolaren dimentsio hau Ikastoletan nahiko sakon aztertu da. Alde batetik, «Organización y Desarrollo» taldearen gidaritzapean, «Gestión y funcionamiento de la Ikastola. Modelo orientativo», (liburu berdea) plazaratu zuen Ikastolen Elkartek, 1985eko maiatzean. Eta besterik, aurreko liburu horretan oinarrituz, beste liburu bat prestatu zuen Ikastolen Elkarteko Talde Teknikoak: «Ikastola: Izaera eta egitura» (liburu urdina), 1987an plazaratu zena. Lehen aipaturiko liburuan «Euskal Eskola»n (liburu zuria) kapitulu bat eskaintzen zaio arlo honi. Eskola baten funtzionamendurako hain garrantzizkoa den arlo hau, beraz, esan daiteke nahiko sakon landu eta eztabaidatu dela.

Zehaztasun handietan sartu gabe arlo honen ikuspegi orokorra aurkeztuko dut. Sakonago ezagutu nahi duenak jo dezake arestian aipaturiko liburuetara.

• *Gobernu-Organoez* hitz egiterakoan, Batzar Orokorraz eta Gestio-Batzordeaz ari gara Gobernu-Organoen egin-kizuna da Ikastolen norabide nagusiak definitu, horretarako planak onartu eta prozesuaren eta ematen ebaluazioen kontrola eramatea:

Batzar Orokorra da Ikastolako organo erabakitzaile gorena. Gurasoek, pertsonal irakasleak eta ez-irakasleak, Administrazioaren ordezkariak eta, kasua balitz, bazkide lankideek osatzen dute. Osaerako formula, berriz, denen arteko adostasunez erabakiko da, barne-mailan eta parekidetasuneko erizpideekin.

Gestio-Batzordea, Batzar Orokorra funtzionamenduko organoetara hurbiltzen duen organo ordezkatzailerik eta funtzionala da. Gurasoek, pertsonal irakasle eta ez-irakasle, eta ikastetxe bakoitzean esperientziaren arabera egokitzen ematen diren ordezkariak osatua egongo da. Osaerako formula denen arteko adostasunez erabakiko da, barne-mailan eta parekidetasuneko erizpideekin.

• *Funtzionamenduko egiturak*, ikastetxeko arlo pedagogiko eta ekonomiko-administratiboko planen elaborazio eta burutzapenarekin du zerikusia. Funtzionamenduko egitura Gobernu-Organoen zuzeneko menpekotasunean dago eta argi eta garbi bereizten da Gobernu-gestiotik. Autonomia izango du bere funtzioen exekutapenean, eta ez Batzar Orokorrek ez Gestio-Batzordeak ez dute eskua sartuko Funtzionamenduko mailako exekutapen-prozesuan.

Pertsonala eta Lan -harremanak

Lan-harremanen garapenerako, Langileen Estatutu Berri batean oinarrituko da Euskal Eskola Publikoko pertsonala. Estatutu horrek, gure ustez, egungo funtzionari-sistema espainol eta frantsesari nabarmenki kontrajarria eta ondoko ezaugarriok izan beharko lituzke, ezinbestean:

- Legeria publikoa izango du Lan-harremanen iturritzat
- Eskolaren autonomia errespetatu eta indartuko du.
- Bere antolamendu eta garapenean estamentu guztien (Administrazio, Langileen ordezkari eta Hezkuntz Komunitatearen) partaidetza segurtatuko du.

- Kontratatzailleak Euskal Eskola Publikoko titularraizango da. Langileek bete beharreko funtzioak eta laneko baldintzak, oro har, Hitzarmen Kolektibo baten bidez erabakiko dira, eta ikastetxe bakoitzean zehartuko.

- Irakasleen adskripziorako edo atxekipenerako prozedura orokor bat egongo da, baina aldi berean, behar adinako malgutasuna beharko du, hautaketa ikastetxe bakoitzaren Hezkuntz Proiektuaren beharren arabera egin ahal izateko.

- Langile guztiak euskaldunak izango dira.

Finantzaketa

Ikastetxeek behar dituzten baliabideen finantziaketa bi iturritatik etor daiteke:

- Finantziaketa publikotik: Administrazioetik datorren finantziaketa honek bi maila izango ditu. Oinarrizko bat, ikastetxe guztientzat berdina eta osagarri bat, laguntza bereziak eta konpentsaziozkoak behar dituzten ikastetxeei bideratua.

- Finantziaketa propioa: Ikastetxe bakoitzak, finantzaketa publikoa berak autogestionatzearekin batera, beste finantz iturritara jo ahal izango du, nahiz kuota bidez, nahiz enpresa edo erakundebidez.

AZKEN GOGOETA

Argi dago hemen zirriborrotu dudak Ikastolatik proposatzen den Eskola Publikoaren ereduak ez duela zergatik izanik leku guztietarako egokia. Herrialde bakoitzak bere partizipazio-kultura propioa du, eta horren arabera jakin beharko du eredu hori bere ezaugarrietara egokitzen. Baina badago, hala ere, gure proposamenean funtsezko aspektu bat, publikotasunaren kontzeptuaren muina ukitzen duena, Administrazio publikoa ulertzeko moduan eragin handia duena eta azterketa sakon bat mereziko lukeena. Aspektu hori, Estatu Administrazioaren eta Gizarte Zibilaren arteko zubia egingo duen egitura juridiko konpartitua bideratzean datza. Badira gizartean interes orokorreko ekintzak, eta horietako bat hezkuntza da, Estatuak bereganatzeko arrazoirik ez daukana, eta ezta Gizarte sozialeko beste zinnahi partaidek (eskola, guraso, etab.ek) ere. Interes orokorreko ekintza hauek Estatuaren eta Gizarte Zibilaren arteko dikotomia hausten dute, Zuzenbide Publikoaren eta Pribatuaren arteko dikotomia hausten dute eta «Estatu Soziala»ren esparruan sartzen dira. Ekintza-mota horietarako, Administrazio Publikoaren eta inplikaturako gizarte-sektoreen arteko «partaidetza publiko-sozial»eko formula juridikoak aurkitzea oso aurrera-pauso garrantzitsu bat izango litzateke. Hezkuntzari dagokionez, berriz, «Titularitate konpartitua»n datza guk proposatzen dugun formula.

BIBLIOGRAFIA

- E.H.I.E.:** «Ikastolen normalizazioan buruzko oinarritzko gogoetak». Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartek, 1983ko martxoa, Donostia.
- «Organización y Desarrollo»** taldearen gidaritzapean: «Gestión y funcionamiento de la Ikastola (Modelo orientativo)». E.H.I.E., 1985eko maiatza, Donostia.
- E.H.I.E.ko Talde Teknikoa.** «Ikastola, izaera eta egitura». E.H.I.E., 1987, Donostia.
- E.H.I.E.:** «Europako Eskola Publikoaren baitako Autonomia eta Kontrola. Symposium-eko Aktak. E.H.I.E., 1987ko apirila, Donostia
- E.H.I.E. «Euskal Eskola».** E.H.I.E., 1991, Bilbo.
- Garagorri, X. eta beste.** «Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera». Jakin aldizkaria, 28.alea, 1983ko uztaila, Donostia. 6-60 orr.
- Garmendia, M.K.:** «Euskal irakaskuntzaren histona apur bat». Isilik aldizkaria, 4. alea, 1984eko abendua, Donostia, 33. or.

- Arrien, G.:** «La génesis de las escuelas vascas». Bilbao, 1983.
- D'Hainaut, L.:** «Los sistemas educativos. Análisis y regulación», Narcea, Madrid, 1988.
- García Garrido, J.L. eta beste:** «La educación en Europa: Reformas y perspectivas de futuro». Cincel, Col. Educación y futuro, 17. alea, Madrid, 1988.
- Sociedad Española de Pedagogía:** «La calidad de los centros educativos II», Pedagogiako IX. Kongresu Nazionalako Aktak, 1988ko iraila, Alicante:
- Galino, A.:** «Hacia una educación intercultural en Europa». 57-68. orr.
- Medina, R.:** «Participación social y calidad de la educación». 109-127. orr.
- Vázquez, G.:** «Eficacia, innovación y autonomía, claves actuales de la calidad del sistema educativo». 129-155. orr.